

Abarrak

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Don Vito eta akolitoak

MARTXOAREN 15EAN 40 urte egin zituen Francis Ford Coppolaren *The Godfather* apartak, aitzakia ezin hobea mafia italoamerikarra –botere borroka, ustelkeria, familia, mendekua, negozioa– gai duen filma berrikus-teko. Azken finean, ezaguna zaigu istorioa: pelikula irekitzen duen ezkontzaren eszena luze eta gogoangarrian nola, ospakizun alaian eman ditugu egunak, eta alboko gela ilunean, don Vito eta akolitoak aritu dira azpijokoa, lokatzetan eroso. Sotilagoak dira egungoak, ez dituzte zaldi buruak uzten ohean, ez dute etsaia sokaz itotzen; nahiago dituzte neurrira sortutako legeak, mehatxuak eta txeke zuriak. Garaiotako Corleonek ez du Marlon Brandoren ahots urratuarekin hitz egiten, ahapeka adosten ditu eskupekoak, eta jokoa baino, adreilua, errauste plantak, hirigintza, espekulazioa ditu negozio-iturri. Haatik, familia zutabe garrantzitsua da oraindik, esleipenak eta goi-karguak banatzeko garaian.

Ikusi ditugu gurean funts-desbideratzeak –lapurre-tak, hizkera jatorrean–, irregulartasunak museo eta erakunde publikoetan, golf zelai eta lursailen saleros-

keta zalantzarriak, epaile eta agintarien prebarikazioak, opari festak. Baina *The Godfather*-ko mafiosoen dotorezia eta estiloa falta zaie, gaurkoek trakets jokatzeko dute,

egun argiz eta lotsa-gabe. Fikziozko mafiak bere alde du klasiko bihurtu den Nino Rotaren musika-banda zirrargarria, ikuslea harrapatzeko gai den tentsio dramatikoak, Coppolak erabilitako plano berritzaileak, pelikula guztia zipriz-tintzen duen giro beltza, Marlon Brando eta Al Pacinoren interpretazio bikainak, buruan iltzatuta geratzen diren esaldiz osatutako gidoia... “Aitak edozein gizon boteretsuren antzera jokatzeko du, senatari edo presidente baten antzera”. “Ez izan inozoa, Michael, senatariek eta presidentek ez dute jendea hiltzen”. Isilunea. “Zein da hemen inozoa?”. Inozoenak gu, ospakizun alaia betiko izango zela sinesteagatik.



Kalean da apirileko



aizu!

- Autodefentsa feministan sakontzen
- Bizi Toki, eskolari alternatiba
- Ipuinak etxe giroan
- Nafarroako antzerki eskola, iraun nahian
- Patri Pinedo arin-arin

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

aizunet.org